

Azadiya Welat

Prentsa askearen martiriak



Bertako langileak atxiloketa, tortura edota erailketaren mehatxupean bizi dira. Hala ere, Azadiya Welat, Turkiako kurduerazko egunkari bakarra, kioskoetan dago goizero.

KARLOS ZURUTUZA

Argazkiak: Borja Portuondo

GOIZEKO ZORTZIAK Diyarbakirren. Turkiako egunkari kurdu bakarraren langileak banan-banan agertu dira egoitzan. Goizero bezala, paretan zintzilikatutako 15 erretratuek ongietorria eman diete. Ez da hileko langile onenei sobietar erako omenaldirik. Eta erretratatuak gaztetasunak argi uzten du ez direla erretiroa hartutako langileak. *Şehiden Çapemeniye Azad* (prentsa askearen martiriak) dio lelo batek hizki gorrietan. Bada, hauexek dira bizia galdutako langileetako batzuk –30 dira dena— egunkaria duela 16 urte hasi zenetik. Gauza jakina da ez dela inoiz erraza kurdu nortasuna aldarrikatzea Turkian. Eta, zeresanik ez, idatzi eta inprimatzea.

“Jende hau guztia eraila izan da baina ez da inoiz errudunik aurkitu; sekula ez da auzirik ireki”, dio Omar erredaktoreak gaurko lehen teontziaren inguruan. Omarrek eta gainontzeko lankideek aspaldi dakite euretako edozein ager daitekeela erretratuan. Arrisku lanbidea ote? Jakina, baina euren soldatak ez du inongo gehigarrik jasotzen bizitza jokatzeagatik.

“Norberaren egoeraren arabera kobratzen dugu. 500 turkiar lira (300 euro) ezkonduak eta 400 ezkongabeek”, dio Hediye, egunkariko itzultzaile gazteak. “Soldata sinbolikoa da ia, horixe baita proiektua aurrera ateratzeko modu bakarra”, jarraitu du. Dioenez, badago 200 lira baino gehiago onartzen ez duen bat. Egoera ekonomiko sendoagoa omen du lankide esku-zabal horrek.

Erredakzio taldea mahaiaren inguruan elkar-tu da biharko edizioa adosteko. Abdullah Ocalan PKKko liderrak jasandako tratu txarrek eta Diyarbakirreko azken istiluek biharko azala hartuko dutelakoan daude denak. Nolanahi, badaude baita ere, besteak beste, Amsterdamgo kurduak antolatutako bizikleta txangoa, Siwan Perwer abeslariari egindako elkarrizketa edota *sterka we* izeneko atala, horoskopoa. “Hizki zopa xume bat txorakeri bat izan liteke askorentzat, baina kurduontzat berebiziko garrantzia du. Zentzu guztietan”, gaineratu du Cetin erredaktoreak bilera amaieran. Momentuz, badirudi egunkaria kioskoetan izango dela, bihar ere.

Yasar Eroglu, erredakzio burua

«Kazetariak ez ezik, hiritar oro dago arriskuan»



Welat egunkariko sortzaileetakoa eta egun erredakzio burua da Yasar Eroglu. Kurduerazko egunkari bakarra argitaratzearen erronkaz mintzo da.

Zein izan da zuen egunkariaren ibilbidea?

Welatekin duela 16 urte hasi ginen. Geroxeago Ankarak debekatu zuen PKK taldearekiko ustezko loturagatik eta *Welat Eme* sortu genuen. Berritua ere itxi eta *Azadiya Welat* atera genuen. Gero *Denge Welat*, *Welat*, eta orain *Azadiya Welat* gara berriz ere. Astekaria izan zen 14 urtez eta 2006an egunkari bilakatu zen. Zailtasunak zailtasun, gure helburuari eusten diogu: gure herriari informazio zuzena eskaintzea, eta bere hizkuntzan.

Nondik dator finantziazioa?

Proiektua salmentekin sustengatzen da, ez baitugu turkierazko egunkariak jasotzen duten Gobernuaren diru-laguntzarik jasotzen, jakina. Aldian behin iragarkiren bat argitaratu ohi dugu baina Newroz bezalako data seinalatuetan soilik. Izan ere, gure publizitate arduradunak zelataka du polizia beti. Denda batean sartu bezain laster, polizia sartuko da atzetik saltzaileari guri edozein babes ematearen “arriskuez” jakinarazteko. Oso zaila da iragarriak ateratzea.

Baina ez omen da hori zuen arazorik handiena...

Hasi ginenetik 30 langile erail dituzte eta atxilotetak ohikoak dira. Bi kazetari preso dauzkagu oraintxe, eta egunkaria banatzen duen konpainia ere mehatxatuta dago. Denok dakigu lanbide arriskutsua dela gurea.

Irudietan, Yasar Eroglu eta erredakzio taldea.



Tortura atxiloteten osagarri al da?

Hasieran harrapatzen zuten oro torturatzen zuten, legebiltzarkideak barne. Baina Emine Demir gure zuzendaria atxilotu zutenean ez zuten torturatu, jakin baitzekiten detaile osoz kontatuko zuela kalera bueltatzean. Orain ez gaituzte torturatzen, herriari sinestarazteko turkiar espetxeetan ez dela halakorik egiten.

Preso kurduak zuen egunkaria jasotzeko modurik ba al dute?

Egunkariak debekatuta daude turkiar espetxeetan. Guardiak sobornatzea da eskuratzeko modu bakarra.

Ergenekonen –gerra zikinaz arduratzen den sare politiko-militar klandestinoa– itzala ikusten al duzu zuen jendeak jasandako atentatuetan?

1996an Mehmet Agadek auto istripua izan zuen. Mussa Anterrek eta Hussein Denizek ere istripuak izan zituzten, baina ez zen inoiz ikeritu. Bi kasu hauek eta beste batzuk Ergenekoni burutzen ari den epailetan atera dira. Familiak ikertzea eskatu dute, baina Gobernuak ez du inolaz ere halakorik bideratu.

Beldur al zara?

Duela gutxi bonba batek eztanda egin zuen Diyarbakirreko parke batean. Sei hilabeteko ume bat hil zen. Hiri honetan jende asko hiltzen da oso era ilunean eta inoiz ez da guztiz ikertzen. Horrekin zera esan nahi dut, kazetariak ez ezik, hiritar oro dagoela arriskuan hemen. ■

www.argia.com/multimedia
kanalean, erreportajearen diaporama.